

## LEZOKO BIZTANLEEI ADIERAZPENA

---

**L**ezion eta Mundo del País Vasco eta El Diario Vasco egunkarietan azaldu dira idazki batzuk salatuz San Joan Elizaren lurpeko ehortzileku balio historiko handikoak txikitu ditugula; horren aurrean Parrokiako Obretako Batzordeko kideek lezoarrei adierazi nahi diegu:

1. Parrokian egiten ari diren lanen erantzukizuna Obren Batzordeko kide guztiena da, hamar (10) lagunek osatzen baitute. Obrei buruzko erabaki guztiak Batzordearen bileretan hartu dira.
2. Batzordeak jasoak ditu lan horiek burutzeko behar diren agintarien baimen guztiak hala Donostiako Gotzaitegiarena, nola Gipuzkoako Aldundiarena eta Lezoko Udalarena. Legearen barruan aritu gara lanean eta adituen aholkuak ere beti jaso ditugu.
3. Elizako zorua azpian kalefazioa jartzerik ba ote zegoen jakiteko jaso zen. Egindako ikerketek azaldu zuten kalefazioa ezartzeak eta zoru berria ipintzeak 40 zentimetroko sakonera eskatzen zutela. Ehortztegi bakarra 50 zentimetrora zegoela eta haren egitura ukitu gabe lan guztiak egin zitezkeela ziurtatu ondoren, behar zen proiektua egin eta zegokien agintariei aurkeztu zitzairen. Baimena lortu genuen eta kalefazioa ezarri zen, eta ondoren zoru berria ere jartzen ari gara, Lehengo zorua egurrezkoa zen, aski hondatua zegoen eta harriak ere gastatuak zeuden eta nibel guztiak galduak, porlanezko hainbat konponketa dela medio.
4. Aurreko puntuan esan bezala, elizaren azpian ehortzileku bat bakarra aurkitu da eta baita zorrotz errespetatu ere. Zoru azpiko lurra ez zen tinkoa hondartsu eta soltea baizik. Batean eta bestean aurkitu dira, sakabanatuta hezur batzuk, lehengo ehortzilekuren bateko hondakin edo zirenak.
5. Kalefazioa eta zoru berria ezarri aurretik, hezur horiek guztiak bildu eta elizako lurrazpian bertan sartu ziren. Aurkitutako ehortzitegia, berriz, zegoen-zegoenean utzi dugu.
6. Zoruko harlosak ez dira galdu, altxata daude, behar bezala antolatuta eta elizaren inguruak konpontzeko.
7. Obrak hasi ziren une beretik, Batzorde hau beti egon da iruzkin eta iritzi guztiak entzuteko zabalik. Horren froga da Lander Zurutuza jaunak eskatuta, ez genuela inolako zalantzarik izan Aldundiko restauradoreari deitzeko, erretaula nagusiaren atzeko leihoko pintura-modu bat salbatu nahian.

8. Kezkatuta gauzka Obren Batzordekook salaketa sinatu duten historia eta artearen ikerketariak Batzorde honekin harremanetan jarri ez izanak. Ez baitira hurbildu-lanak denen bistan eta inolako isilperik gabe egin direlarik- beren kezkek azaltze-ra, eta salaketa -egiaren neurrikoa ez dela uste duguna- kalefazioa jarri eta zoru berria bukatuta dagoenean kaleratu dute.
9. Hala berean, azaldu nahi dugu Obretako Batzordeak Lezoko biztanlerik gehienek babesa berekin sentitzen duela. Horixe adierazten du etenik gabe eta esku zabal-tsun handiaz eman duten laguntzak. Laister azalduko ditugu herri osoaren aurrera kontuak eta oraindik ere egiteko dauden lanen zerrenda. Gure eskerrik beroena.
10. Jakin bezate salaketaren sinatzaileek, erakunde guztiek eta Lezoko herriak Obretako Batzordea prest eta zabalik dagoela, eta zaleturik ere bai, Lezoko monu-menturik nagusienetako baten berrikuntzan kontuan hartu beharreko iritzi guztiak entzun, aztertu eta aintzat hartzeko.

### *Obretako Batzordea*

